

# Apirilaren 1ean Ikasketa kooperatiboen gaineko jardunaldia egingo da HUHEZIn

2011/03/18

## Egitaraua

**09:00** Dokumentazio banaketa

**09.10** Jardunaldiaren aurkezpena: "Ikaskide Taldeak Proiektua".

Nekane Arratibel (HUHEZI) eta Andoni Zendoia (Erkide)

**09:30** Hitzaldia: "Konpetentzien ebaluazioa: talde lana". Joan Rué

(Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa)

**10:45** Atsedena eta kafea

**11:15** Ikastetxeetako esperientziak

- Bihotz Gaztea Ikastola (Santurtzi)
- Pasaia-Lezo Lizeoa (Pasaia-Lezo)
- Inmakulada Ikastola (Tolosa)

**12:45** Hitzaldia: "Ikaskidetzaren erronkak. Eredu berri baterantz". Ainara

Artetxe, Meltxor Artetxe, Mariam Bilbatua, Pello Jauregi, Marije

Fullaondo

**13:45** Agurra



## Ikaskidetzaren proiektua

Proiektu honetan hiru hezkuntza-erakunde bildu dira, premia eta beharra izan dutenak elkarkidetzaren hezkuntzan garatzeko eta elkarlanean aritzeko: Erkide (Euskadiko Lan Elkartearen, Irakaskuntza eta Kreditu Kooperatiben Federazioa), Ikaskide taldea (berau Mondragon Unibertsitatekoa) eta zenbait ikastetxe Ikaskidetzaren proiektuan parte hartzen dutenak.

Ikaskide proiektuaren helburua da ikaskidetzaren kultura eta balioak garatzea, eta berauek uztartea ondoko konpetentzia hauekin: elkarrekin bizitzea eta lan egitea, komunikatzen ikastea eta ekintzailetasuna.